



Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak

Ondorioak



Ipar Euskal Herrian elkarren ondoan bizi diren bi hizkuntza daude baina bata ofiziala da eta bestea ez, bata ahalguztiduna da eta bestea gutxitua, nola ikuspuntu demografikotik hala, batez ere, ikuspegi funtzionaletik





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak

Ondorioak

Ipar Euskal Herrian elkarren ondoan bizi diren bi hizkuntza daude baina bata ofiziala da eta bestea ez, bata ahalguztiduna da eta bestea gutxitua, nola ikuspuntu demografikotik hala, batez ere, ikuspegi funtzionaletik

Ipar Euskal Herrian elkarren ondoan bizi diren bi hizkuntza daude baina bata ofiziala da eta bestea ez, bata ahalguztiduna da eta bestea gutxitua, nola ikuspuntu demografikotik hala, batez ere, ikuspegi funtzionaletik.

Euskara ez da hizkuntza ofiziala eta mendeetan zehar egoera diglosikoan izan den arren, egun duen balioa inoiz baino txikiagoa da, batetik, euskara hiztunak galtzen ari delako eta, bestetik, hizkuntzari gizartean ospea eta indarra ematen dioten erabilera-eremuetatik at izateaz gain, orain, lehen ez bezala, ohikoak izan zaizkion erabilera-eremuetan ere, hots, familian, lagunartean eta gertuko komunitatean, alboratua gertatzen ari delako, oso azkar gainera.

Bestalde, aipaturiko bilakaera soziolinguistiko hori Ipar Euskal Herriko biztanle-egituran gertatzen ari diren beste hainbat aldaketan une berean ari da gertatzen: batetik, biztanleria gehitzen ari da urterik urte¹; bestetik, Lapurdi barnealdea biztanleak irabazten ari da Baiona-Angelu-Miarritze (BAM) hirigunearen eta,

1 Lehenengo inkesta egin zenean (1991) 15 urtetik gora 208.900 biztanle inguru ziren; bost urte geroago 212.400 inguru; eta, 2001ean, 221.600 inguru.





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak

Ondorioak

Biztanle gehienak euskararen normalizazioarako neurri jakinak hartzearen aldeko dira

batez ere, Behe Nafarroa-Zuberoaren kaltetan²; azkenik, etorkinen ehunekoa ere nabarmen igo da azken hamarkada honetan³, BAMen, jada, biztanleen erdiak⁴ (%52,3) etorkinak direlarik.

Nolako eragina dute aldaketa hauek gure herriko bilakaera soziolinguistikoan eta nolakoa euskararen ezagutzan, erabileran eta belaunez belauneko jarraipenean? Horiek dira, hain zuzen ere, 1991, 1996 eta 2001 urteetako inkesta soziolinguistikoetatik ateratako datuen argitan erantzun nahi izan ditugun galderak.

Oraintxe esan berri dugu euskara hiztunak galtzen ari dela. Hori bistakoa da 1991tik honako bilakaera azterturik eta bistakoa da ere 2001eko hizkuntza gaitasunari buruzko emaitzak adin-taldeka aztertuz gero.

Hizkuntza-gaitasunari begiratu partez lehen hizkuntzari begiratzuz gero, ondorioa oso antzekoa da: XX. Mendean zehar galera azkarra gertatu da familia bidezko euskararen geroratzean.

2 1991n, Iparraldeko biztanleriaren %45,2 BAMn bizi bazen ere, 2001ean, %43,1 bizi da bertan. Behe Nafarroa-Zuberoako biztanleria ere %18,2tik %14,4ra jaitsi da. Aitzitik, Lapurdi Barnealdea da biztanleak irabazi dituen bakarra %36,6 izatetik %42,5 izatera pasatu baita.

3 1991n %31,3koa zen; 1996an %38koa eta 2001ean %39koa.

4 65 urtez goikoen artean ehuneko hori are handiagoa da (%59,6).





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren transmisioa

Euskararen erabilera

Nortasuna eta jarrerak

Ondorioak

Biztanle gehienak euskararen normalizaziorako neurri jakinak hartzearen aldeko dira

Gaur egun, honela labur daiteke Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa:

- Biztanle gehienak euskararen normalizaziorako neurri jakinak hartzearen aldeko dira. Euskararen aldeko jarrera hori batz bestekoaren oso azpitik dago BAMen. Bertan erdaldun elebakarren eta etorkinen proportzioa beste lurraldeetako baino askoz handiagoa da.
- Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, euskararen galera nabaria eta begi bistakoa izan da. Baina, badirudi, euskara galtzeko joera motelten hasia dela gazteen artean. Lapurdi barnealdea da nolabaiteko berreskurapenaren zantzuak argien erakusten dituen lurraldea.
- Honez gain, familia bidezko euskararen transmisioan galera handiak gertatu dira. Izan ere, galerak handiak dira guraso biek euskaraz hitz egiten dakitenean eta euskararen geroratzea hutsaren hurrengoa da euskaraz aitak ala amak bakarrik dakienean.
- Hortaz, euskararen galerak irabaziak baino askoz handiagoak dira: etxean euskara ikasi ondoren euskara guztiz ala partez galdu dutenak, euskara, eskolan ikasi dutenak baino askoz gehiago dira (hamar aldiz gehiago gazteen artean). Hala eta guztiz ere, elebidun hartzaileak, hots, irabazi partzialak gero eta gehiago dira.





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak

Ondorioak

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, euskararen galera nabaria eta begi bistakoa izan da. Baina, badirudi, euskara galtzeko joera moteltzen hasia dela gazteenen artean

- Horren guztiaren eraginez euskararen erabilera gero eta txikiagoa da etxean, lagunartean, gizarte-bizitzan eta eremu formalenetan.
- Dena den, euskaraz frantsesez beste edo gehiago hitz egiten dutenei bakarrik erreparatzeko partez, arreta euskaraz ari diren guztiengan jarriz gero, hots, euskaraz frantsesez baino gutxiago egiten dutenak ere kontuan hartuz gero, egoera, oso bestelakoa da.

Oinarrizko adierazle hauen adinkako bilakaera oso negatiboa izan da, azken hamar urte hauetan, eta gordin-gordin ikustarazten digu euskararen atzerapena zenbaterainokoa izan den.

Soziolinguistikako inkesta lehen aldiz egin zenean (1991) 50 urte baino gehiago zituzten biztanleen artean, euskaraz zekitenen proportzioa bat zetorren ia, euskara etxean ikasi zutenenarekin eta haien hiru laurdenak euskaraz frantsesez beste edo gehiago egiten zuten euren eguneroko bizitzan.

Grafikoak adierazten duenez, 50 urte baino gutxiago zituztenen artean euskara etxean ikasi zutenen eta euskaraz zekitenen arteko aldea, pixkanaka, handitzen ari zen. Aldi berean, askoz handiagoa zen nagusiki euskaraz bizi zirenen eta euskaraz zekitenen arteko aldea: gazteenen artean, euskaraz zekitenak etxean ikasi zutenen bi heren baino ez ziren eta haien artean herena baino ez zen nagusiki euskaraz bizi.





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren transmisioa


Euskararen erabilera

Nortasuna eta jarrerak

Ondorioak

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, euskararen galera garbia eta begi bistakoa izan da. Baina, badirudi, euskara galtzeko joera moteltzen hasia dela gazteen artean

Euskararen egoeraren adierazleak adin-taldeka (%) (Iparraldea, 1991)





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren transmisioa

Euskararen erabilera


Nortasuna eta jarrerak

Ondorioak

Euskararen egoeraren adierazleak adin-taldeka (Iparralde, 1991)



	ADIN-TALDEAK				
	>= 65	50-64	35-49	25-34	16-24
(n)	202	237	245	160	73
(Milakoak)	47	54	53	37	18
(%)	100	100	100	100	100
HIZKUNTZA-GAITASUNA					
Elebiduna	18	21	17	10	4
	37,7	39,8	32,0	25,9	19,7
ZEIN IZAN ZEN ZURE LEHEN HIZKUNTZA HAURTZAROAN?					
Euskara + Biak	20	25	21	12	6
	42,5	47,4	39,1	31,3	33,4
ZEIN IZAN ZEN ZURE LEHEN HIZKUNTZA HAURTZAROAN?					
Euskara	18	21	16	9	4
	37,6	38,4	30,2	25,5	22,7
(n)	90	164	212	131	54
(Milakoak)	21	37	45	29	13
(%)	100	100	100	100	100
ERABILERAREN TIPOLOGIA					
Euskaraz frantsesez hainbat edo gehiago	6	7	7	3	1
	26,8	17,8	14,6	9,6	6,8



Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak

Ondorioak

Familia bidezko euskararen transmisioan galera handiak gertatu dira

Joera bi horiek areagotu egin dira, azken hamar urteotan, adin-talde guztietan. Gaur egun, gazteen artean, euskaraz dakitenak etxean ikasi dutenen erdiak baino ez dira eta haien artean laurdena baino ez da nagusiki euskaraz bizi.




Sarrera	Hizkuntza-gaitasuna	Hizkuntzaren transmisioa
Euskararen erabilera	Nortasuna eta jarrerak	

Ondorioak

Euskararen egoeraren adierazleak adin taldeka (%) (Iparraldea, 2001)

Euskararen galerak irabaziak baino askoz handiagoak dira



- Elebidunak
- L1: euskara
- L1: euskara bakarrik
- Erabilera: eusk. = > fr.





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren transmisioa

Euskararen erabilera

Nortasuna eta jarrerak

Ondorioak

Euskararen egoeraren adierazleak adin-taldeka (Iparraldea, 2001)

	ADIN-TALDEAK				
	>= 65	50-64	35-49	25-34	16-24
(n)	436	369	447	257	208
(Milakoak)	57	46	58	35	26
(%)	100	100	100	100	100
HIZKUNTZA-GAITASUNA					
Elebiduna	20	14	13	4	3
	35,5	29,8	23,0	12,1	12,2
ZEIN IZAN ZEN ZURE LEHEN HIZKUNTZA HAURTZAROAN?					
Euskara + Biak	21	17	16	8	7
	37,2	36,0	28,3	24,1	25,2
ZEIN IZAN ZEN ZURE LEHEN HIZKUNTZA HAURTZAROAN?					
Euskara	19	14	13	5	4
	33,4	30,9	22,5	15,9	14,3
(n)	235	285	376	195	193
(Milakoak)	31	35	48	25	24
(%)	100	100	100	100	100
ERABILERAREN TIPOLOGIA					
Euskaraz frantsesez hainbat edo gehiago	6	4	4	1	1
	20,9	11,2	8,8	4,6	3,1



Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak


Ondorioak

Euskararen erabilera gero eta txikiagoa da etxean, lagunartean, gizarte-bizitzan eta eremu formalenetan

Erabilerari buruzko emaitzek erakusten digute galera ez dela oraindik erabatekoa. Asko eta asko dira nagusiki euskaraz bizi ez arren familian, lagunartean, gizarte-bizitzan eta eremu formalenetan euskaraz zertxobait egiten dutenak. Halaber, erakusten digute gero eta gehiago direla etxean euskararik ikasi ez arren, ondoren, eskolan edo heldu aroan euskara ikasten saiatu eta behintzat ongi ulertzeko eta zertxobait hitz egiteko gai direnak.

Baina Iparraldean euskara biziberritzeko ez ezik euskarak bizirik irauteko ere ezinbestekoa da herri-aginteez nahi duen orori seme-alabak euskaraz eskolatuak izateko eskubidea bermatzea. Izan ere, hezkuntza-sistema euskalduntzea da milaka eta milaka lagunek euskara ikasteko bide bakarra. Horixe zioen 1999an onarturiko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak:

"Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteen artean. Beste aldean, berriz, Iparraldea dago; lurralde horretan euskararen jarraipena belaunaldi gazteen artean atzeraka doa: euskarazko hezkuntza-sistema ezarri ez izanaren



Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak


Ondorioak

Asko eta asko dira nagusiki euskaraz bizi ez arren, familian, lagunartean, gizarte-bizitzan eta eremu formalenetan euskaraz zertxobait egiten dutenak.

eragin zuzena. Iparraldean 1991n eta 1996an egindako inkesten emaitzek argi asko frogatzen dute esaldi honek dioena: "Une langue qu'on n'enseigne pas est une langue qu'on tue". Lurralde horretan gero eta guraso euskaldun gutxiago dago euskara familian bertan gerora dezakeena. Hori horrela, gurasoek finantzatutako euskal eskolak ez dira aski eskolumeen masa kritiko bati euskararen jarraipena ziurtatzeko. Diruz lagundutako euskarazko eskolarik gabe, belaunaldi batetik bestera euskaldunen kopuruaren beherakada esponentziala besterik ez du ekarriko etorkizunak. Iparralde itzulerarik gabeko egoerara doa horrela: ez da bermatuko ezta euskararen biziraupena ere. Diru publikoz finantzatutako euskarazko irakaskuntza ezinbesteko da euskararen jarraipenerako Iparraldean. Eskolatik eta Unibertsitatetik baztertzen den hizkuntzak ez du iraupenik."

Halaber, behar-beharrezkoa da herritarrek dituzten hizkuntza eskubideak bermatzeko euskara ofizial egitea. Horixe da gainera herritarrik gehienek eskatzen dutena. Hizkuntzaren gainbehera ez da ekidin ezinezko fatalitatea. Argi eta garbi erakusten digute hori euskararen beste lurraldeetako jokabideak eta bilakaerak.





Sarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren
transmisioaEuskararen
erabileraNortasuna
eta jarrerak

Ondorioak

Iparraldean euskara biziberritzeko ez ezik, euskarak bizirik irauteko ere ezinbestekoa da herri-agintek nahi duen orori seme-alabak euskaraz eskolatuak izateko eskubidea bermatzea

Amaitzeko, Joshua A. Fishman ikerlari ospetsuak hizkuntza biziberritzeaz ari zela idatziriko honako hau ekarri nahi dugu hona:

"Eskolaz kanpoko eta eskola-aldiaren ondoko loturak eta indargarriak behar-beharrezkoak ditu eskolak, ikasleak eskolan jasotako trebetasun eta ezagutza horiek indartzuz joango badira, bere buruari eutsiko badiote eta eragile beregain operatiboak bihurtuko badira. Bi dira, oinarriz, gizarteak bere eskolei eskain diezazkiekeen lotura eta indargarri-motak: **sentipenetan eta emozioetan oinarritutakoak**, batetik; eta, bestetik **balio instrumental eta praktikoetan finkatuak**. Sentipen-emoziozko indartzaileen artean, intimitate-alor desberdinetan eragiten duten pertsona ezagunen, adiskideen eta belaunaldi guztietako familiartekoen maitasun-giroa, zaintze-babesa eta oniritzia aipatu behar dira. Eskola-saioen indartzaile instrumental-praktikoen artean, aldiz, honako besteok: gizarte-bizitzak eskaintzen dituen ordain-sariak, lanpostu eta posizioak eta, oro har, gizarte-bizitzan izandako arrakastaren eta hartan eskuratutako lorpenen seinale nabari desberdinak".

